



Esp. zk. SUBV_CONDIR_NOM/2018/4

LA PAMPLONESA MUSIKA BANDAREN DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA

ESKU-HARTZAILEAK:

Batetik, MAIDER BELOKI UNZU, Iruñeko Udalaren izenean eta haren ordezkari gisa, indarrean diren legeek eman dizkioten eskumenak erabilia.

Bestetik, JOSÉ ANDRES PALACIOS FERRER, 33432683K NAN zenbakiduna, LA PAMPLONESA MUSIKA BANDAREN (aurrerantzean, pertsona edo entitate onuraduna) izenean eta haren ordezkari gisa.

Bi aldeek gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri hitzarmen honetan adierazitakoa betetzeko, eta, horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

Hitzarmen honen xedea da indarrean den Iruñeko Udalaren Aurrekontuan ageri den diru-laguntza izenduna bideratzea, eta xedatzea pertsona edo entitate onuradunak bere gain hartzen dituen baldintzak eta konpromisoak.

2018. urteko Iruñeko Udalaren Aurrekontu Orokorrean LA PAMPLONESA MUSIKA BANDARI diru-laguntza izenduna ematea aurreikusi da.

Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 22.2 artikularekin bat, zuzenean eman ahalko dira toki-erakundeen aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak, hitzarmenetan eta diru-laguntza horien araubideetan ezarritakoarekin bat, eta lege horren 28. artikulua ezarritakoaren arabera hitzarmenak izanen dira diru-laguntza horiek bideratzeko ohiko tresnak.

Bestalde, Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 19. artikulua eta hurrengoek arautzen dituzte Udalaren aurrekontu orokorrean aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean emateko araubidea eta prozedura.

Aipatu xedapenetan ezarritakoarekin bat, bi aldeek adierazten dute hitzarmen honen edukiaren berri dutela, eta hura sinatuta hitzarmenetik eratorritako betebeharrak eta konpromisoak onartzen dituztela, honako klausula hauekin bat:





KLAUSULAK

LEHENA.- XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da zedarritzea La Pamplonesa Musika Banda Kultur Elkarteari diru-laguntza izenduna emateko zehaztapenak eta baldintzak, 2019an haien mendeurrena ospatzeko egin behar diren lanak garatze aldera.

Hala elkartearen izaera bereziak nola haren kultur sustraiak, interes publikoa eta kulturala erakusten dituzten arrazoiek justifikatzen dute norgehiagoka publikotik kanpo geratzea, eta hitzarmen hau justifikatzen dute, laguntzen baita mendeurren hori ospatzeko aurreikusitako jarduera-kopuru zabalaren garapenean.

Esleitutako zenbatekoa 2019an Bandaren mendeurrena ospatzeko jarduerak prestatzeko gauzatuko da.

BIGARRENA.- AURREIKUSITAKO JARDUKETAK ETA ALDEEN KONPROMISOAK.

1. Aurreikusitako jarduketak eta aldeek onartzen dituzten konpromisoak:

Honako hauek izanen dira aldeek garatu beharreko jarduketak eta onartutako konpromisoak:

- o Liburu baten edizioa, La Pamplonesaren bilakaera eta historia bilduko dituena.
- o Dokumental bat, La Pamplonesaren historiaren inguruko irudi eta bideoekin.
- o Unitate didaktiko bat. Materiala sortuko da Nafarroako haur eta lehen hezkuntzako ikasleekin lantzeko. Material hori 2018an garatuko da, 2019ko lehen hiruhilekoan erabili ahal izateko, urtarriletik martxora, eta haurrekin mendeurrena ospatzeko oinarria izan dadin.
- o Kontzertuen grabaketak eta materialak Nazioarteko Banda Jaialdirako. 2018an Iruñeko hiriaren eta La Pamplonesaren dokumentu soinudunak, ikusizkoak eta grafikoak sortu beharko dira, 2019ko ekainean eginen dugun Jaialdiaren hedapen- eta publizitate-elementu gisa erabili ahal izateko. Horrez gain, jaialdiaren bitartez Turrillas maisuaren lana munduan zehar hedatzeko aukera egonen da, eta, aldi berean, ezagutzera emateko gure alderdirik klasikoena kontzertuei dagokienez. Egun horietan Iruña musikaren ikur bihurtuko da nazioartean.
- o J. Vicent Egearen obra. Obra bat egiteko enkargua eginen zaio Vicent Egeari (La Pamplonesaren zuzendaria), ospakizunaren oroigarri soinuduna izan dadin. Bestalde, Musika Banden Jaialdian parte hartuko duten bandei igorriko zaie obra, baita gure errepertorioko obrarik ospetsuenak ere.
- o Mikrobideoak egingo dira. Multimedia material txikiak prestatuko dira 2019an sareetan erabiltzeko, La Pamplonesaren bizipen-elementu gisa.
- o Idazkaritza Teknikoa: aurrekontu finko bat ordainduko zaio ekitaldien kudeaketan eta hedapenean espezializatutako enpresa bati. Enpresa hori hautatuko da Musika Banden Jaialdia garatzeko eta hura egiteko behar diren jarduketak eta elementuak koordinatzeko; jardueren epeak betetze aldera, 2018an hasi beharko du lanean.

2. Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak:

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiazta daitekeena



002295366741816299



ZUZENKO EMATEA

- Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak:

a) Diru-laguntzaren xede diren helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo jokabideari heltzea.

b) Entitate laguntzaileak organo emailearen aurrean justifikatzea, kasuan-kasuan, betekizunak eta baldintzak bete direla, bai eta jarduera egin dela ere, eta diru-laguntza zertarako eman eta helburu hori bete dela.

c) Men egitea dagokion organo emaileak edo entitate laguntzaileak egin beharreko egiaztapen-jarduketei bai eta kontrol-organo eskudunek finantzaketa egiaztatzeke zein kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-artxiboetan jasota egon ezean.

d) Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari edo entitate laguntzaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

e) Egiaztatzea, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, egunean dituela hala tributu-betebeharrak nola Gizarte Segurantzarekikoak. Iruñeko Udalak ofizioz egiaztatuko du entitateak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak.

f) Kontabilitate-liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala ikuskatuta, pertsona edo entitate onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion merkataritzako legeek eta lege sektorialek ezarritakoarekin bat, bai eta hitzarmen honek egiaztapen- eta kontrol-eskumenak modu egokian gauzatuko direla bermatzeko galdatzen ahal dituen egoera-orriak eta berariazko erregistroak ere.

g) Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne–, egiaztapen eta kontrol jarduketan xedea izan daitezkeen neurrian.

h) Behar bezalako publizitatea egitea, diru-laguntza zer programa, jarduera, inbertsio edo jarduketatarako jaso eta horiek Iruñeko Udalak finantzatu dituela jakitera emate aldera: BAI EZ

Hona pertsona edo entitate onuradunak laguntza jaso izanaren berri emateko hartu behar dituen neurriak:

- Iruñeko Udalaren irudi instituzionala eranstea.
- Legendak karteletan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoetan, ikus-entzunezkoetan eta abarretan.
- Oroitzapen-plakak.
- Aipamenak hedabideetan.
- Beste batzuk:

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatu daitezkeena



002295366741816299



ZUZENKO EMATEA

i) Jasotako funtsak itzultzea, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eta, hala behar izatera, hitzarmen honek hori egiteko zer kasu ezarri eta halakoetan.

- Pertsona edo entitate onuradunaren berariazko betebeharrak: BAI EZ

3. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen jarduerak egiteko epea:

Hitzarmen honi dagozkion diruz lagundutako jarduerak 2018an egingo dira.

4. Proiektuan aldaketak egiteko aukera: BAI EZ

BAI laukia markatu bada, aurreikusi gabeko inguruabarrak direla medio, aldaketak egiten ahalko dira proiektua gauzatzean, hasierako aurreikuspenei dagokienez, inguruabar horiek kontuan hartzekoak badira jarduera zuzen betetzeko eta aldaketa horiek ez badute eragiten funtsezko aldaketarik proiektuan, diru-laguntzaren xede den jardueraren izaera edo helburuez bezainbatean.

Proiektua gauzatzean aldaketak sartzeko, aldeztatik diru-laguntza kudeatzen duen unitateak aldaketak baimendu beharko ditu, eta horretarako, pertsona edo entitate onuradunak eskaria aurkeztu beharko du, idatziz, proposatutako aldaketa egiteko beharra justifikatuz, aldaketak sartzeko beharraren berri izan bezain azkar eta, edonola ere, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen.

Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, zilegi izango da jasotako diru-laguntzak itzularaztea edo, hala badagokio, diru-laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, osorik edo hein batean, proiektua garatzen den bitartean pertsona edo entitate onuradunak sartzen baditu aldeztatik hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera baimendu gabeko aldaketak. Proiektuaren barruan hainbat jarduera independente baldin badaude, baldintza horrek soilik eragingo die baimenik gabeko aldaketak izan dituzten jarduerari.

Bestelako betekizun edota baldintzak:

5. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzen ahal diren gastutzat joko dira diru-laguntzaren xede den jarduerarekin bat datozenak eta gastu orokorren parte proportzionala.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastu bakoitzaren zenbatekoa, banan-banan hartuta, 18.000 eurotik gorakoa denean

– ekipamendu ondasunen horniduraren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan –, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaileei dena delako zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu, diru-laguntza jasotzekoak diren gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan hornidura edo zerbitzu hori egin dezaketen behar adina entitaterik ez bada edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada.

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiazta daitekeena



002295366741816299



ZUZENKO EMATEA

Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, eragimen eta ekonomia printzipioei egin behar zaie men, eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berariaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, diru-laguntzaren eskabideari.

Egindako gastutzat joko dira hitzarmen honen bosgarren klausulako 2. atalean ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak:

BAI EZ

HIRUGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO AURREKONTU-KREDITUA, DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA, HALA BADAGOKIO, PROIEKTUA FINANTZATZEKO ENTITATEAK EZARRI BEHARREKO FUNTSEN EHUNEKOA.

1. Diru-laguntzaren zenbatekoa: 40000

2. Aurrekontu-partida: 50/33401/482090

3. Diruz lagundutako jardueren finantzaketa: BAI EZ

Baiezkoan, adierazi zenbatekoa edo ehunekoa:

LAUGARRENA.- PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

- Pertsona edo entitate onuradunaren nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzekoak BAI EZ

Dena den, agiri horiek aurkeztuko dira iazkoekin alderatuta aldaketarik egon bada soilik, eta betiere bost urte pasa ez badira Udalean aurkeztu zirenetik.

- Erantzukizuneko aitortpena, non adieraziko baita pertsona edo entitate onuradunak betetzen dituela onuradun izateko deialdi honetan galdutako baldintzak, eta ez duela ukitzen onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikulua aitpatzen dituen debeku-zioetako bakar batek ere: BAI EZ

- Pertsona edo entitate onuradunak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, agiri hauek:

Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

Eskatzailearen erantzukizuneko aitortpena, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiazta daitekeena



002295366741816299



ZUZENKO EMATEA

Udalak ofizios egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori jasoko du dagokion eginbidean.

Aitorpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako diru-laguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak:

BAI EZ

- Memoria bat, diru-laguntza zertarako eman eta proiektu, ekintza, jarrera, jarduera edo programa hori deskribatzen duena: BAI EZ

- Bestelako agiriak:

BOSGARRENA.- JUSTIFIKATZEKO ERAK ETA BEHAR DIREN AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA.

1. Justifikatzeko modalitatea: Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak eta lortu beharreko helburuak bete direla justifikatzea jarraian azalduko den era zehatzean egingo da. Justifikatzeko modalitatea zehazten ez bada, gastuen justifikazio-kontua aplikatuko da, gastuen ziurtagiria aurkeztuta.

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Diru-laguntzei buruzko Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukirik: BAI EZ

Justifikazio-kontu erraztua. Justifikazio-kontu erraztua aurkeztea, 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikuluan ezarritakoarekin bat (38/2003 Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren erregelamendua). Honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. Jarduketa-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako betekizunak bete direla justifikatzeko, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.
2. Jarduerak eragindako gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, non honako hauek identifikatuko baitira: hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, jaulkitze-data eta, jada ordaindua izanez gero, ordainketa-data.
3. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak edo diru-laguntzak xehe-mehe adierazita, horien zenbatekoa eta jatorria barne.
4. Diruz lagundutako gastuen egiaztagirien kopia arruntak.
5. Halakorik balitz, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli izanaren ordainketa-agiria.
6. Iruñeko Udalak emandako diru-laguntzez bezainbatean egingo dituen egiaztapen- eta finantza-kontrol guztiei men egitea.

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiazta daitekeena



002295366741816299



ZUZENKO EMATEA

Aurkeztutako justifikazioari balorazio-txosten bat erantsi beharko zaio, Udaleko teknikari eskudun batek sinatuta. Bertan espresuki adierazita geldituko da guztiz bete dela diru-laguntzaren xedea, edo, bestela, zer akats eta inguruabarrek eragozten duten justifikazioa onestea.

Ondorengo izapide presentzial bat ezarriko da, diruz lagundutako gastu eta ordainketen kontrol-sistema honen arabera:

Organo kudeatzaileak –behin entitate onuradunak gastuen justifikazioan adierazi dituen gastuen zerrenda aztertuta– eskaera eginen dio entitate onuradunari aurkez ditzan –errekerimendua jaso eta, gehienez ere, 10 egunean– organo kudeatzaileak hautatutako jatorrizko agiriak eta haien kopia arruntak (gastua justifikatzean ez bada eskatu kopia arrunta aurkeztea) –administrazio-espeditentean jasota uzte aldera–, zeinek, gutxienez, egindako gastuak, eta, kasuan-kasuan, ordainketak egiaztatzen dituzten agiri guztien ehuneko hogeitaz izan beharko baitute, eta ahalbidetu beharko baitute, gutxienez, diruz lagundu eta egindako gastu osoaren ehuneko hogeitaz hamar egiaztatzea.

Baldin eta, organo kudeatzaileak jatorrizko zer agiri hautatu eta horiek erakutsita, desadostasun bat badago, eta desadostasunak badirau hura zuzentzeko errekerimendua egin eta gero, gastua eta gastuaren ordainketa justifikatzeko jatorrizko dokumentazioa eskatuko da, eta, behar izatera, galdata ahalko da diru-laguntzaren bidezkoa den kopurua itzultzeko, kopuru horri gehituko zaizkiolarik dagozkion interesak, eta, behar izatera, legez ezar litezkeen zehapenak ere.

- Gastuaren egiaztapena, moduluka (Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

- Kontabilitate-orrien aurkezpena (Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

- Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Klausula honetako 1. ataleko justifikazio-agiriak 2019ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira.

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiazta daitekeena



002295366741816299



SEIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Hitzarmen honek indarra izanen du sinatzen den egunetik diruz lagundutako proiektua erabat justifikatu arte, hitzarmen honetan eta aplikagarri diren gainerako arauetan xedatutakoarekin bat. Hala ere, aipatu behar da finantzaketak barne hartzen dituela 2018an egindako jarduerak.

ZAZPIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA.

Udalaren diru-laguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diru-laguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izango da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

Diru-laguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, hitzarmen honetan baimendutako kasuetatik at beste diru-iturri batzuk eskuratzen badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatzen ahalko da.

ZORTZIGARRENA. AZPIKONTRATATZEA.

Azpikontratatzeko aukera: BAI EZ

Baiezkoan, adierazi ehunekoa eta baldintzak:

Pertsona edo entitate onuradunak inola ere ezin izango du hitzarmenik egin Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30.7 artikuluan zehazten diren pertsona eta entitateekin, diru-laguntzaren xede diren jarduerak osorik edo zati batean egiteko.

BEDERATZIGARRENA. ORDAINKETA.





1. Nola ordaindu:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua: Iruñeko Udalak hitzartutako kopuruaren % 100 ordainduko dio entitate onuradunari ordainketa aurreratu gisa, gehienez ere hilabeteko epean, hitzarmena noiz sinatzen den eta hortik aitzina.

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zurreraren artekoa:

Ofizioski kitatzen ahal izango dira pertsona edo entitate onuradunengandik kobratu gabe dauden zorrak, diru-laguntza hori, osorik edo parte batean, zor dituzten kopuruekin konpentsatuta.

BAI EZ

2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Baiezkoa bada, eratzeko modua eta zenbatekoa:

HAMARGARRENA.- JARRAIPEN-MEKANISMOAK, HITZARMENA BETETZEN DELA EGIAZTATZE ALDERA: BAI EZ

- Jarraipen-batzordea eratu da: BAI EZ

Baiezkoan, adierazi kideak:

- Beste mekanismo batzuk:

Jarraipena, Kultura eta Hezkuntzako Alorreko teknikari baten aldetik.

HAMAİKAGARRENA.- DIRUA ITZULARAZTEA.

Zilegi izanen da hala jasotako diru-laguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –diru-laguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean edo, halakorik balitz, hitzarmen honetan berariaz aurreikusi diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak:

BAI EZ

HAMABIGARRENA.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.

Ez dago aukerarik diru-laguntza honetan

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatu daitekeena



002295366741816299



HAMAHIRUGARRENA.- HITZARMENAREN ADMINISTRAZIO-IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Hitzarmen hau honako hauek arautuko dute: Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean jasotako aginduak, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legea eta aplikagarriak diren administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

Hitzarmen honek administrazio-izaera dauka, eta jarraipen-batzordeak ez baditu konpontzen Hitzarmenaren interpretazioaren, aplikazioaren eta ondorioen inguruan sor daitezkeen auziak, Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenari zuzenduko zaizkio.

Eta gorago jasotako guztiarekin adostasuna erakuste aldera, alde guztiek sinatzen dute agiri hau, goian adierazitako lekuan eta datan.

